

Zubietara hurbildu dira jarraitzaile txuri-urdin asko jokalaria animatzera; azken asteetako kritikek diotenari garrantzia kenduz, taldea lan txukuna egiten ari dela uste dute.

Realzale gazteenak, baikor

Estitxu Zabala

Realzaleek beti izan dute jarraitzaile finen ospea, taldea momentu zailetan eta Bigarren Mailan egon denean ere berarekin egon baitira. Azken asteetan zalantzan jarri dute komunikabide askok taldearen jarduna. Izan ere, azken hiru jardunaldietan ez du garai-penik eskuratu. Gainera, Martin Lasarte entrenatzailea bera ere haserre agertu zen Deportivoren aurka Riazorren 2-1 galdu ostean. «Argi geratu da ez gaudela gorago aritzeko moduan. Jauzia emateko partida zen eta ez dugu eman, oso ahal aritu gara», adierazi zuen uruguaitarrak prentsaurrekoan. Edonola ere, beste behin, zaleek taldearekin jarraitzen dutela argi utzi dute. Hori baieztatzeko, atzo goizean Zubietatik osteratxoa egitea besterik ez zegoen; bereziki zale gaztetxoek harmailak hartu zituzten.

Oihane eta Laura Fernandezek

eskolan jai zutela aprobetxatu zuten, euren talde gogokoena lanean ikusteko. «Partida batzuk galdu dituen arren, taldea ongi ari da. Ez dakit mantentzea baino gehiago lortuko duen, baina hori bakarrik nahikoa izango da», aipatu zuen Oihane. «Batzuetan Anoetara joaten gara edo bestela telebistaz jarraitzen ditugu partidak», gaineratu zuen Laurak. Bi lagun ustez, Malagaren aurka (igandea, 17:00) ere Realak irabazi

egingo du, beraien jokalaria gogokoan ez baitu hutsik egingo; Griezmannnek, alegia. Julen Borge amaratarra ere pozik zegoen taldearen errendimenduari eta oraindik gorago joan daitekeela adierazi zuen. «Orain arte bezala jarraitu behar du. Anoetako partida guztiak irabazi behar ditu eta etxetik kanpoko batzuk ere. Euro-parako ere sailka daiteke».

Bestetik, Realak talde zabala duela nabarmendu zuen Andoni

Amunarrirek. «Oraindik asko falta da Liga bukatzeko, eta lehen itzulian zorte txarra izan duen arren, taldea ongi dabilela uste dut. Plantilla aldetik ere ongi dabilta, hamaikakotik kanpo badaude jokalaria onak. Hala ere, ez du merezi Europarekin itsutzeak», aipatu zuen Lasarteko realzaleak.

Antonio Marcosek mantentze hutsaren aldeko apustua egin zuen. «Azken partida oso txarra izan zen, baina taldea mantenduko dela ziurtatua dago. Hala ere, hurrengo asteko partida zaila izango da, Malagak irabazi egin behar baitu». Jon Gomezek ere onena zuhurtziaz jokatzeko dela adierazi zuen. «Uste dut etxetik kanpo gaizki jokatzen ari direla. Lehenengo mantentzeko puntuak lortu behar dira eta gero hasiko gara gorago begira. Gainera, Malagaren aurkako partidak erraza dirudi, baina ez gara fidatu behar, momentu onean baitago». ezabala@hitza.info

Aranburu eta Elustondok taldearekin egin dute entrenamendu saioa

➔ Realeko lesionatuak hobera egiten ari dira, izan ere, Mikel Aranburuk eta Gorka Elustondok gainontzeko taldekideekin egin zuten atzoko entrenamendu saioa, baina beranduago zela iratu ziren. Hala, badirudi igandean Malagaren aurka jokatzen moduan egongo direla biak ere. Bestetik, Raul Tamudo ere berdegunean egon zen eta baloiarekin jokatu zuen. Hori bai, saio berezia egin zuen Karla Larbururen laguntzarekin. Alberto de la Bellak ez zuen entrenatu gainkarga batengatik eta Sutil bakarrik aritu zen gimnasioan.



Entrenamenduan maiz entzun ziren taldearen aldeko oihuak. Saioa bukatzean zale gaztetxoak jokalarien sinaduren bila joan ziren. E.Z.

“



Ez dakit mantentzea baino gehiago lortuko duen, baina hori bakarrik nahikoa izango da»

OIHANE ETA LAURA FERNANDEZ
Ordizia



Anoetako partida guztiak irabazi behar ditu eta etxetik kanpoko batzuk ere»

JULEN BORGE
Amara



Plantilla aldetik ere ongi dabilta, hamaikakotik kanpo badaude jokalaria onak»

ANDONI AMUNARRIZ
Lasarte



Azken partida oso txarra izan zen, baina taldea mantenduko dela ziurtatua dago»

ANTONIO MARCOS
Errenteria-Oretea



Malagaren aurkako partidak erraza dirudi, baina ez gara fidatu behar, momentu onean baitago»

JON GOMEZ
Errenteria-Oretea